


ESKOLA HODEIAN

Nerea Arrien



erein **AUSKA** 

ESKOLA HODEIAN

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2018ko maiatzean

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Estibalitz Jalón

© Nerea Arrien

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-309-1

L. G.: SS-519/2018

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

NEREA ARRIEN

ESKOLA HODEIAN

Marrazkiak: Estibalitz Jalón

erein **AUSKAZO** 

idazlea
nereaarrien



Nerea Arrien (Lekeitio, 1976). Hamar urte nituela, piano-jotzaile izan nahi nuen. Geroago, ez dakit zein ideia xebreren ondorioz, Biokimikako tituluarekin atera nintzen unibertsitatetik. Orain irakasle naiz eta, tarteetan, eleberriak irensten dituen munstroa. Etxekoentzako, berriz, *amatxo*. Eta zuentzako, uzten badidazue, 1001 gauetan ipuinak kontatzen dituen *Xerezade*. Gau horietan asmatu nuen *Pentsatzeko txokoa*, 2015. urtean Lizardi saria eskuratu zuen ipuina. Iaz, Gabriel Aresti sariketako akzesita jaso nuen “Matrioska” lanagatik eta aurten, Estibalitz Jalonek eta biok “Farolillo de papel” sariaz gozatu dugu *Atrapa eguna* liburuagatik.

estibalitzjalón

marraskilaria



Estibalitz Jalón (1984). 2007an argitaratu zuen lehen lana, eta geroztik, hogeitaka liburu ilustratu ditu. 2009an, haurrentzako albumik onenaren egitasmoa saritzen duen Etxepare saria irabazi zuen, eta, 2010ean, *100 de hoy: Espainiar Estatuko Haur eta Gazte literaturako ilustratzaile eta idazleak* izeneko erakusketan parte hartzeko aukeratua izan zen, IBBYren 32. Nazioarteko Kongresuan. Horrez gainera, Euskal Herriko haurrek bi urtez segidan hautatu dute beren ilustratzaile kutunen artean JUUL saria emanda. Aurten, Nerea Arrienekin batera, “Farolillo de papel” saria jaso du *Atrapa eguna* liburuagatik.

Hodeietan

Umore onez esnatzen naizenean *zirruetara* alde egiten dut.

Motxila etxean ahaztu eta andereñoen zigorra jasan behar dudanean, *estratu* batera jaisten naiz.

Haserre nagoenean eta ekaitza datorrela sentitzen dudanean, *kumuluninbo* eran trinkotuta nago.

Edo izoztuta geratzen naiz, elurrez betetako *ninbo-estratu* horietan. Gaur, gurasoek berria eman didate-nean bezala.

Gauza da aire, ur eta presioek menderatzen nautela. Andereñok azaldu digun uraren ziklo hori baino al-dakorragoa naizela eta ez dudala zereginik. Hondartzara joan nahi eta eguraldikoak euria egingo duela esaten duenean bezala. Eguraldia bere kasa doalako. Jainkoek edo –amak esaten duen legez– zorteak baino

aldatu ezin dutelako. Eta ni hamabi urteko mutiko bat baino ez naiz.

Andereñoren hitzetan, “beti hodeietan dagoena”.

Zer egin dezaket nik horren kontra? Neure borrodatearen aurka lurruntzen eta kondentsatzen bainaiz?

“Gure gorputzaren %95 ura da”, esaten du Martin maisuak. “Barkatu”, esan nahi nioke: “%95 urezkoak zuek zarete”. Beste %5ean nago ni, lurrunez, urez eta izotzez osatua. Hodeietan, bai; *zirru, estratu, kumulu, kumulunimbo* edo dena delakoetan. Arrazoi duzue. Eta? Ezin al du helduren batek hona igo? Hegazkinez, globoz, zer dakit nik!

Ezetz dio amatxok. Neuk jaitsi behar dudala hodeietatik. Hara! Hain erraza izango balitz bezala! Eta atzo gauean, *meeee* egiten duten hodeiak kontaktzen nituen bitartean, entzun egin nien gurasoei: “Ba, bera jaisten ez bada, geu igoko gara!”.

“Igo daitezela”, pentsatu nuen. Ze demontre! Beraien errua da-eta ni beti hodeietan egotea! Amona Glorik esaten die igandetan, haren etxera goazenean: “Ume hau kotoi artean hazi duzue”. Ez al dago hor-txe guzti honen gakoa? Kotoietara ohitu banaute, non egongo naiz hodeietan baino hobeto?



Baina gaur goizean, hamabi urte hauetako kotoi guztia kendu didate. Horrela, bat-batean, supituki. Eta kanpoan mara-mara erortzen ari ziren elur malutak hartu behar izan ditut nire hodeia osatzeko. Izoztuta geratu naiz, *ninboestratu* baten barruan.

–Bagoaz –esan dute.

–Nora? –galdetu diet.

–Hodei artetik paseo bat egitera –aitak.

–Baina, eta eskola? –nik.

–Berria –amak.

–Non egongo da nire eskola berria?

–Hodeian.

Hegazkinean

Ez ote da hegazkin hau izango nire eskola? Hau ulertzen ote dute gurasoek hodei artean egoteko afizioaz? Gezurra badirudi ere, beldurra diot hegan egiteari. Katua hil zitzaidanetik. “Mixito hil da”, esan zuen aitak eta, *danba*, hodei gainetik erori nintzen. Izugarrizko zartada hartu nuen esaldiaren kontra. Ordutik, beldurra diet leku garaiei. Baita neure hodeiari ere.

Hodeiaren kontu hau ez da jolas zoro bat, ez naiz marrazki bizidunetan bezala hodei batean esertzen.

Ez.

Nola azaldu? Nire lagun Peruk marrazkiak egiten ditu triste dagoenean. Amona, pozik badago, kantari aritzen da. Amatxok ez dio berba egiteari uzten urduri

dabilenean. Nik, berriz, barneko *zer* hori daukadanean, hodeira alde egiten dut. Hodeia, barneko *zer* horretatik ihes egiteko leku bat delako. Edo amets egitekoa; marrazkia, kanta eta berba bezalako. Zenbat eta amets handiagoa, orduan eta hodei altuagoa.

Baina ez da posible barneko *zer* horretatik guztiz alde egitea. Hodeiak inoiz ez direlako nahi bezain garaiak. Hori erakutsi zidan Mixito hil zenean hartu nuen zartadak.

Horregatik, hegazkinak erosotasunaren altuera gainditu duenean urduritzen hasi naiz. Oihuka, negarrez eta egon ezinik. Aitak eskolaren kontuari egotzi dio nire larritasuna, eta ordenagailua jarri dit oinetan. “Hauxe duzu zure eskola berria”, esan du. “Sartu pasahitza”. Eta luzatu dizkidan hizki- eta zenbaki-zerrenda idatzi dut pantailako laukitxoan.

Eskola berria hiru zutabetan banatuta dago: foroak, ezkerrean; irakasgaiak, eskuinean; partaideak, erdian. “Hor daukazu: eskola berria hodeian”, esan du aitak. “Ate gabeko eskola”, gehitu du.

–Bai zera, orduan denek alde egingo dute –erantzun diot purrust eginez.

–Edo nahi duenak sartu –azaldu dit berak, nondik, nora eta nork zehaztu gabe.



Eta dena hain lausoa den hodei horretako eskolaz ari garela, ia konturatu gabe, altuera galdu dugu. Eta mendizaleei bezala, altuerako gaitza osatu zaidanean, argitasunez hasi naiz pentsatzen, lasaitasunez arnasten eta galderak egiten.

“Heldu al gara?”.

“Zenbat falta da?”.

“Non gaude?”.

Eta erantzunak entzuten nituen bitartean, hegazki-naren gurpilak atera dira eta lur hartu dugu. Beno, lur hartu dute, ni neure hodeian zintzilik geratu bainaiz.